

ERABAKIA, 2019KO ABENDUAREN 17KOA, EPAIMAHAIARENA, BIGARREN SAILKAPEN TALDEA, ERAIKUNTZA, OBRA ZIBIL ETA MANTENTZE LANETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KATEGORIAN, ARKITEKTURA ETA OBRAK ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren 3. puntuari jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan), Lehenengo sailkapen taldea, Eraikuntza, Obra Zibil eta Mantentze Lanetako goi mailako teknikarien kategorian, Arkitektura eta Obrak espezialitatean, lan kontratudun langileak sartzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA.- Oposizio-faseko behin-behineko kalifikazioen zerrenda onartzea, zuzenketak emandako emaitzei jarraiki.

BIGARRENA. – Zerrenda horiek EHUko enplegu-atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp?prcs=265) argitaratzea agindu, hautagaiek kontsulta ditzaten.

Prozeduran parte hartu duzueni gogorazten dizuegu Deialdiaren Oinarri orokorrek hamar lanegunen epea ematen dutela, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezzen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gainditutako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

Adierazi behar da interesdunek eskabidean alegatutako merezimenduen jatorrizko egiaztagiria eta kopiak aurkeztu beharko dutela erkaketa egiteko, edo, bestela, organo eskudunak behar bezala erkatutako kopia. Baldintza horietan berberetan aurkeztu beharko dituzte egiaztagiria, kautelaz, oposizio fasea gainditu ez dutenek, baldin eta errekurtsioa aurkeztu badute eta horrek hasierako fasea gainditzea ekar badezake.

Bestalde, UPV/EHUK ofizios aurkeztuko ditu UPV/EHUn zerbitzuak bete dituzten hautagaien egiaztagiria, baldin eta eskari orrian horrela adierazi badute.

Gainontzeko zerbitzuak egiaztatu egin beharko dira egiaztagiri bidez, eranskinean jasotako ereduari jarraituz.

Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko erregistroetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4. art.), lege horretako azken xedapenetako zarpigarrenak erregistro elektronikorako ezartzen duen salbuespenarekin (hau da, erregistro elektronikoa dagozkion xedapenak hasiko direla ondorioak sortzen legea indarrean sartu eta bi urteren buruan).

Leioa, 2019ko abenduaren 17a

Epaimahaiko burua

Iñigo Viar Fraile